



**Joseba  
Santxo  
Uriarte**



# TXANOGORRITXOREN BERTSIO GANBERROA



**Jatorrizko hitzak:  
Roald Dahl**



**Doinua:**

**Ikusi nuanean**

**Kopla edo lauko txikia**

- (...)
- |  |   |  |
|--|---|--|
| <p><b>1</b> Amonaz mozorrotu zen otso <b>baldarra</b> -arropa zen irentsi ez zuen <b>bakarra</b>,-</p>           | <p><b>7</b> Neskari adi-adi zegoen <b>otsoa</b>:<br/>A zer masail gorriak!<br/>A zer <b>txanotxoa</b>!</p>              | <p><b>13</b> Eta otso zitala paretik <b>kentzeko</b>,<br/>daunba! tiro bakarrez utzi zuen <b>seko</b>.</p>         |
| <p><b>2</b> Soinean berokia, buruan <b>kapela</b>,<br/>apatxetan zapatak -a zer <b>pasarela</b>!-</p>            | <p><b>8</b> Eta pentsatu zuen:<br/>Aldatu da <b>dieta</b>!<br/>Amona sandwicha zen;<br/>hau berriz, <b>txuleta</b>!</p> | <p><b>14</b> Handik astebetera,<br/>nahi baduzu <b>jakin</b>,<br/>ni neu topatu nintzen <b>Txanogorriekin</b>.</p> |
| <p><b>3</b> Gero ile guztiak jarri <b>apain-apain</b><br/>eta han gelditu zen Txanogorriren <b>zain</b>.</p>     | <p><b>9</b> Orduan Txanogorrik:<br/>Amona <b>kuttuna</b>,<br/>bai beroki ederra soinean <b>duzuna</b>.</p>              | <p><b>15</b> A zer look aldaketa begira <b>jarririk</b>:<br/>ez zeraman ez txano ez kapa <b>gorririk</b>.</p>      |
| <p><b>4</b> Txanogorri heldu zen poz-pozik <b>saltari</b><br/>eta begiratuta <b>amonaordeari</b>:</p>            | <p><b>10</b> Ez al duzu ikasi ipuina, <b>kaikua</b>?<br/>Orain egin behar zen hagin <b>aipua</b>!</p>                   | <p><b>16</b> Orduan esan zidan ahoan <b>irria</b>:<br/><b>Hau dut OTSO LARRUZKO BEROKI BERRIA!</b></p>             |
| <p><b>5</b> zer belarri handiak dituzun, <b>amona</b>!<br/>Perfektorik ez dago...<br/>otsoaren <b>broma</b>.</p> | <p><b>11</b> Dena dela berdin dit edozer <b>esanda</b>,<br/>oraintxe jango zaitut neska mihi <b>luzanga</b>!</p>        |  |
| <p><b>6</b> A zer nolako begi handiak <b>dituzun</b>!<br/>Parrandaren otea...<br/>otsoak <b>erantzun</b>.</p>    | <p><b>12</b> Baina gure neskato ausartak <b>kolpetik</b><br/>pistola bat atera zuen <b>gonapetik</b>.</p>               |  |